

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, BILBOKO ARTE MODERNO ETA GARAIKIDEAREN UKANDUNA, SL 1999-2007 FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE), Eusko Legebiltzarraren Osokoak hala eskatuta, Bilboko Arte Moderno eta Garaikidearen Museoaren Ukanduna, SLren (Ukanduna) 1999tik 2007rako ekitaldietako fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena Osokoaren kideen gehiengoak onetsi du, nahiz kideetatik bik desadostasunezko boto partikularra egin duten eta kideetatik hiruk baterako boto partikularra.

Fiskalizazio txostenak legezkotasuna berrikusi du ondasun eta zerbitzuen kontratazio gaitan eta ezargarri diren bestelako legezko arauen ezarpenean. Halaber, urteko kontuak ezargarriak zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datozela egiaztatu da.

Legezkotasunari dagokion atalean, Epaitegiaren iritzira Ukandunak ez du 1999tik 2007ra bitarteko ekitaldietan jarduera ekonomiko-finantzarioa arautzen duen legezko arautegia bete eta hainbat ez-betetze zehaztu ditu.

Honela, bada, 2004tik 2006ra bitarteko urteko kontuen oroitidazkian jasotako aurkezpen-oinarriak nabarmen aldentzen dira horiek egiteko egiaz erabilitakoekin eta horrek Merkataritza Kodeak agintzen duena urratzen du.

2003ko abenduan Ukandunak onartu egin zuen Guggenheim Bilbao Museoaren Fundazioak (Fundazioak) dibisetako bi aukera-eragiketa laga izana, 1.500 mila dolarrekoa bakoitza, 2004an iraungitzen zirenak; honek Ukandunari Fundazioaren alde hutsean 800 mila euroko galerak bere gain hartzea ekarri zion eta hori xede sozialaren aurkakoa da.

Fundazioko Administrazio eta Finantzen Zuzendariak izenpetutako eragiketa ugari azaleratu dira, horretarako baimenik ez zuela. Horrezaz gain, ezin egiaztatu izan dugu norik baimendu zituen 20,1 milioi dolarren eskurako erosketa eragiketak, ez 2004ko otsailean 6,8 milioi dolarreko mailegua, besteak beste.

Ukandunak Urteko Kontuei dagokienez, HKEEk aldeko iritzia eman du 2007ko ekitaldiari dagozkien buruz, aurkezpen eta edukiari dagokionez; ordea, kontularitzako doiketa egin du truka-neurri aldean ondorioz eta aurreko ekitaldietan ibilgetuaren balio handiago edo txikiago modura oker jasotako sarrera finantzarioen ondorioz; ordea, ez ditu 1.138 mila euroko truka-neurri aldeak jaso, ibilgetuaren saldoa oker handitzen duena.

1999tik 2006ra bitarteko ekitaldiei dagokienez, HKEEk uste du urteko kontuek ez dutela ez ekitaldi horien jardura ekonomikoa, ez ondarearen eta finantza egoeraren, ez eta eragiketen emaitzen isla zuzena erakusten eta iritzia txostenean bertan xehetasunez jasotako hainbat salbuespen, doiketa eta birsailkapenekin euskarritzen du.

Berebat, HKEEk hainbat irizpen plazaratu ditu barne kontrolerako sistemari eta kudeaketa prozedurei buruz eta azpimarratu du Inmobiliariak fiskalizazio-gai izan den aldian, ez dituela barne kontrolerako baliabide eraginkorrak eskura izan, izan ere kudeaketa eta finantza, kontu eta ekonomiaren kontrola eta dokumentazio eta kontularitzako liburuen zaintza zuzena, guztia pertsona bakar batean bildu baititu. Barne kontrol eza hau, gainera, kanpo kontrol ezarekin baterakoa izan da, Inmobiliariari ez baitaio 1999tik 2006rako ekitaldietan kontuen auditoriarik egin.

Halaber, kudeaketari buruzko irizpenen atal honetan aipatzen da artelanak erosteko beharrezko dolarren erosketan aurreratzeak, ez soilik dibisen gaineko aukeren bitartez, baita eskudirutan egindako erosketetan ere, Ukandunari 7 milioi euro inguruko galerak ekarri dizkiola.

Amaitzeko, txostenari hainbat eranskin argigarri, desadostasunezko boto partikularra eta baterako boto partikularra osotasunean txertatu zaizkio.